



Bergarako  
Udala

## INTERNETETIK IDENTIFIKATZEKO GAKOA ESKURATZEA: B@KQ ZIURTAGIRIA

### **Helburua**

Bergarako Udaleko eta beste hainbat erakunde publikotako (Euskadiko beste udalak, Foru Aldundiak, Osakidetza...) zerbitzu telematikoetan identifikatu eta izapideak egiteko, B@kQ ziurtagiri kualifikatua eskura daiteke Bergarako Udalean.

B@kQ pertsona fisikoak elektronikoki identifikatzeko baliabide bat da, kautotzeko eta sinatzeko aukera ematen duena. Elementu hauek osatzen dute: erabiltzailearen NAN, pasahitza, eta 16 karaktere alfabetiko eta numeriko dituen koordenatu-joko bat.

Ziurtagiria eskuratzeko, IDENTIFIKAZIO PRESENTZIALA behar da; horregatik, beharrezkoa da udaleko Idazkaritzara edo Agorrosinera bertaratzea NANarekin.

### **Norentzat**

16 urte beteta eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duen edonork.

### **Aurkeztu behar diren agiriak edo betebeharrak**

\* Estatuko herritarra izanez gero:

- NAN, pasaportea edo gidabaimena.

\* Atzerriko herritarra izanez gero: Europar Batasuneko kidea edo Europako Esparru Ekonomikoko estatuetakoa:

- Atzeritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ).

- Batasuneko Kideen Herritarren Erregistroak emandako ziurtagiria.

\*Erkidegotik kanpoko herritarra:

- Atzeritarren identifikazio zenbakia (AIZ).

- Indarrean dagoen bizileku-txartela (jatorrizkoa).

\*Helbide elektronikoa.

\*Telefono mugikorren zenbakia.

### **Aukezteko epea**

Edozein momentuan.

### **Eskabidea non aurkeztu**

BERTARATUTA

Idazkaritza. Udaletxea. San Martin Agirre 1, beheko solairua

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:30; ostegunetan arratsaldez ere bai: 16:00-19:00.  
(ikus zerbitzuaren egutegia)

Agorrosin ekintza gunea. Boni Laskurain 21, beheko solairua

Veáese información sobre horarios y calendario en la web de Agorrosin ([www.bergarakirola.eus](http://www.bergarakirola.eus))

*Eska daiteke halaber:*

---

Anbulategian (Boni Laskurain 17): 8:00etatik 20:00etara.  
KZgunean (Barrenkalea 35 - Irizar jauregia 3. solairua)

## **Zenbatekoa/Tasak**

Udalak bere gain hartzen du kudeaketaren kostua.

## **Izapidetzearen departamentu arduraduna**

Bergarako Udala - Idazkaritza

## **Erabakitze epea**

Aurreikusitako epea: Momentuan.

## **Legeak eta arauak**

- Izenperekin hitzarmena
- Bergarako Udalaren administrazio elektronikokoaren zenbait alderdi arautzen dituen ordenantza.

## **Oharrak**

- Bergarako Udaleko egoitza elektronikoko zerbitzu telematikoetara sartzeko, onartutako beste edozein identifikazio-sistemak ere balio du. Adibidez: txartel digitaleko ziurtagiriak (Izenpe, NAN-e, Camerfirma edo FNMT).

- Izenpeko B@kQ ataria

Hemendik aldatu ahal izango dituzu zure pasa-hitza, B@k/B@kQ-ren harremanetarako datuak edo itsasontzi-jokoa; eta baita zure egoera kontsultatu ere, identifikazio-mekanismoak probatu edo itsasontzi-jokoaren koordinatuen berrigorpena eskatu.